



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

Bizkaiko Errepideen hurrengo Lurralde Sektore Plana definitzeko Batzar Nagusietan Txosten bat prestatzearen aldeko apustua egin dau Pradalesek

Aldundiaren Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Sailaren Agintaldi honetako lehentasunen aurkezpen ekitaldian, Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Sektore Plana definitzeko Batzar Nagusietan txosten berezia prestatzearen aldeko apustua egingo dauela adierazi dau Imanol Pradales arduradunak. Dokumentu horrek Lurraldeko bideen mapa eta 2017-2029 epealdirako lehentasunak marraztuko ditu. Berak eskatuta egindako agerraldian, legealdi honetan azpiegituretan ez dala inbertsino handirik egongo adierazo dau, bere sailak “100 milioi euroko” gastua aurreikusten dauen arren.

Datozan lau urteetarako “proiektu estrategikoen” artean, Aldundiko arduradunak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Batzordearen aurrean egin dauen agerraldian, Energy Intelligence Center (EIC) izenekoa martxan jartzea eta Estatu osoko eta “ziurrenez Europa osoko” lehenengo “crowdfunding” plataforma publikoa sortzea azpimarratu ditu. Ganera, Aldundiak inbertsinoak eta talentua erakarteko “eskaintza integrala” eregitean zentrauko ditu bere esfortzuak, “Doing Business in Biscay” izeneko zerbitzuaren bitartez, eta “lehen aldiz” enpresen inbertsinorako, barrikuntzarako eta nazioartekotzerako laguntza integrara bideratuko dau, “3i programaren” bitartez.

Proiektu estrategikoak baztertu barik, Pradalesek Elkarlanean izeneko programea barriro diseinatu dala azaldu dau. Enpresa txikien eta ertainen hazkunderako eta enpresen arteko lankidetzazabaltzeko aukerea emongo dauen programea da, bere berbetan arlo hori gure Lurraldeak daukan “gabezia” dalako; eta, horrez gain, “Be Basque Talent Network” plataformeak bultzatuko da, talentua, enpresak eta Lurraldea erlazionetako. Sailak ez dau Bizkairen proiektuzino turistikoa ahaztuko, Bilbao Bizkaia Be Basque strategiaren bitartez.

“Zeharkako” izaerea daukan Sail barriak alkarren artean erlazionautako hiru sail handi izango ditu (Enpresen Sustapena eta Ekonomiaren Garapena, Kanpoko Sustapena eta Turismoa eta Azpiegiturek eta Lurraldearen Garapena), eta lan “proaktiboa” egingo dau ekonomiaren berreskurapenean eta “kalidatezko enpleguaren” sustapenean.

Holan, Diputatuak, Sailaren lehentasunak bost ardatz nagusi handiren inguruan egituratu ditu. Ardatz horreek kanpoko proiektuzinoa, ekintzaitetza, industria eta lehiakortasuna, talentua eta lurraldearen oreka batzen ditue. Ardatz horreen helburuak Bizkaia leku “erakargarri” moduan erakustea, “enplegu koalifikatua eta kalidatezkoa” sortuko daben enpresa barritzaileen sorkuntzea sustatzea, edo industria Bizkaiko nortasun zeinu moduan errebindiketea eta Lurraldeko lehentasunezko sektoreen, Automobilgintzaren, Aeronautikaren, Energiaren edo Osasunaren, aldeko apustua egitea dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste ardatz batek, kultura zientifikoaren eta teknologikoaren hedapenagaz hasten dan eta, talentua sortzetik igaroz enpresan integrean bukatzen dan prozesua osatzeko hainbat jarduketa eskatzen ditu. Eta bosgarren eta azken jarduketa ardatza, lehiakortasunaren hobekuntzan, enpleguaren sorreran eta lurraldearen orekaren egituraketan eragina izango daben azpiegiturretan inbertitzea izango da.

BATZARRETAKO TALDEAK

Batzarretako talde batzuek sail barriaren “muskulu indartsua” aitortu dabe, bertan alkatu egingo diralako lehengo Herri Lanetako eta Ekonomiaren Sustapeneko sailek eukiezan eskumenak. Jesús Isasi PP-ko ordezkariak hurrengo aurrekontuetan programak zelan zehazten diran ikusi arte itxarotea gurago dauen bitartean, PSE-EE-ko Joaquín Colmenerok, printzipioz, “partiturea gustukoa” dala adierazo dau.

Halanda be, Bizkaiko Ahal Dugu taldeak, lehentasunen aurkezpenean turismo jasangarriari eta bidegorrien eregiteari buruzko aitamenak falta izan dirala esan dau. Batzordeko eguneko gai zerrendaren lehen puntuan Idazkari barri aukeratua izan dan Neskutz Rodríguez bozeroaleak bere kexea azaldu dau, laguntza publikoak emoteko orduan larregizko “burokratizazioa” dagoala eta. “Gaiztasunak dagoz laguntzak eskuratzeko”, esan dau.

Joseba Gezuragak (EH Bildu) bere aldetik, beste “gabezia” batzuk adierazo ditu sailaren lehentasunetan, eta horreen artean enplegu planak –orain beste sail baten esku dagoz–, barrikuntzak Bizkaian bizi dauen “estankamendua” zuzentzeko modua, Aldundiaren esku dagozan industriaguneei larregizko prezioa edo Supersur izeneko errepidearen erabilera handitzeko eta kostua murrizteko “talka plan” baten burutzapena aitatu ditu.

Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarrari jagokonez, Pradalesek azpimarratu dau beharrezkoa dala A-8 errepideko trafikoa murrizteko baliagarria izan dan azpiegiturea “balioan jartea” eta “epe luzean gizartean izango dauen errentagarritasuna” kontuan izatea. Industriaguneei jagokonez, Aldundiaren esku dagozan lurzoru publiko “industrialak eta urbanizatuak” “gitxi” dirala adierazo dau diputatu jaunak. Halanda be, lurzoru publiko batzuetan egin dan “prezioen moldaketeak” inbertsino batzuk posible egin ditu, “200 lanpostu” sortu dituan Sestaoko Precicast-en gertatu dan moduan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Pradales apuesta por la creación de una Ponencia en Juntas Generales para definir el próximo Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia

Bilbao, a 17 de septiembre de 2015

En la presentación de las prioridades del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación en la presente legislatura, su responsable, Imanol Pradales, ha anunciado que apostará por la creación de una ponencia específica en las Juntas Generales para definir el II Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia, un documento que dibujará el mapa viario del Territorio y las prioridades para el periodo 2017-2029. En su comparecencia, solicitada a petición propia, ha señalado que durante la presente legislatura no habrá grandes inversiones en infraestructuras, aunque su departamento prevé un gasto de “100 millones de euros”.

Entre los “proyectos estratégicos” para los próximos cuatro años, el responsable foral ha destacado en su intervención en la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia, la puesta en marcha del Energy Intelligence Center (EIC) y la creación de la primera plataforma pública de “crowdfunding” en el Estado y, “probablemente en Europa”. Además, la Diputación centrará sus esfuerzos en construir una “oferta integral” para la atracción de inversiones y talento bajo un servicio denominado “Doing Business in Biscay”, y “por primera vez” trazará un apoyo integrado a la inversión, innovación e internacionalización de las empresas a través del “programa 3i”.

Sin dejar los proyectos estratégicos, Pradales ha reseñado el programa Elkarlanean que permitirá abrir lazos de colaboración interempresarial para el crecimiento de pymes, “un déficit” que tiene el Territorio, según él; e impulsará la plataforma “Be Basque Talent Network” para relacionar talento, empresas y Territorio. El departamento no se olvidará tampoco de la proyección turística de Bizkaia a través de la estrategia Bilbao Bizkaia Be Basque.

El nuevo Departamento, que tiene cariz “transversal”, con tres grandes áreas interrelacionadas (Promoción Empresarial y Desarrollo Económico, Promoción Exterior y Turismo, e Infraestructuras y Desarrollo Territorial), jugará un papel “proactivo” en la recuperación económica y la promoción de “empleo de calidad”.

Así, el diputado ha articulado las prioridades del Departamento en torno a cinco grandes ejes que aúnan proyección exterior, emprendimiento, industria y competitividad, talento y equilibrio territorial. Los objetivos de estos ejes se resumen en posicionar Bizkaia como un lugar “atractivo”, promover la creación de empresas innovadoras que generan “empleo cualificado y de calidad”, o reivindicar la industria como signo de identidad de Bizkaia y la apuesta por sectores prioritarios del Territorio, como la Automoción, la Aeronáutica, la Energía o la Salud.

Otro eje implicaría toda una serie de actuaciones para completar un proceso que comienza con la difusión de la cultura científica y tecnológica y culmina con su integración en la empresa, pasando



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

por la generación de talento. Y el quinto, y último eje de actuación, será invertir en infraestructuras que redunden en la mejora de la competitividad, la creación de empleo y la articulación del equilibrio territorial.

GRUPOS JUNTEROS

Algunos grupos junteros han reconocido el "potente músculo" del nuevo departamento, en el que se van a juntar las pasadas competencias de Obras Públicas y Promoción Económica. Mientras el representante del PP Jesús Isasi prefiere esperar a cómo se concretan los programas en los próximos presupuestos, Joaquín Colmenero del PSE-EE ha señalado que, en principio, la "partitura gusta".

Sin embargo, Podemos Bizkaia ha echado en falta en la presentación de las prioridades, una mención al turismo sostenible y a la construcción de carriles bici. Su portavoz, Neskutz Rodríguez, elegida en el primer punto del orden del día de la comisión nueva Secretaria, se ha quejado también de la excesiva "burocratización" de la concesión de ayudas públicas. "Existen dificultades para acceder a las ayudas", ha dicho.

Por su parte, Joseba Gezuraga (EH Bildu) ha señalado otras "ausencias" en las prioridades del departamento entre las que ha citado los planes de empleo -ahora en manos de otro departamento-, el cómo corregir el "estancamiento" de la innovación en Bizkaia, el precio excesivo de los polígonos forales o la elaboración de un "plan de choque" para aumentar el uso de la Supersur y reducir su coste.

En relación a la Variante Sur Metropolitana, Pradales ha insistido en "poner en valor" una infraestructura que ha servido para reducir el tráfico de la A-8, y en fijarse en su "rentabilidad social a largo plazo". En cuanto a los polígonos, el diputado ha señalado que los suelos públicos "industriales y urbanizados" en manos de la Diputación son "escasos". Aún así, la "adecuación de los precios" sobre algunos terrenos públicos ha permitido algunas inversiones, como la de Precicast en Sestao que ha creado "200 puestos de trabajo".